

Arraunketa Traineru Liga hasi da

Jose Manuel Francisco

• KAIKU ARRAUN TALDEKO ENTRENATZAILEA •

■ Bat baino gehiago dardarka jarri zuen Jose Manuel Franciscok zuzendutako Tirango traineruak Kontxako banderan. ■ Entrenatzaile galiziarra Kaiku Arraun Talde historikoak fitxatu du, azken urteetako garaipen lehorteari amaiera emateko helburuarekin. ■ Jose Manuel Franciscok ez du presiorik nahi, eta faboritoak Bizkaian beste batzuk direla dio. Inork ez dio sinesten.

«Kaiku ez da faborittoa Bizkaian»


Elantxobeko bandera jokatu baino lehen egin genuen berba Jose Manuel Francisco Kaikuko entrenatzailearekin.

■ **Kaikuk ez du ezer egin, ez bateletan, ez traineriletan. Traineruetan existentzia handia izango da, ezta?**

Exijentzia hori erlatiboa da. Ez da ahaztu behar nire lehen urtea dela klub hone-tan eta ekipoa berria da. Bateletan eta traineriletan ezin zitzaigun ezer exijitu, ez genuelako prestakuntzarik egin. Traineruari begira aritu gara lanean eta zer edo zer egiten hasi beharko gara.

■ **Garbi dago Kaiku dela faborito nagusia Bizkaiko traineru ligan, ezta?**

Kaiku faborito dela esan dezakete, baina nik ez dut uste horrela denik. Ez dut uste Kaiku faborittoa denik. Faborittoa izango litzateke ekipoa eginda egongo balitz, baina ez da horrela. Hilabete batzuk daramatzagu lanean eta ezin zaigu eskatu lehenengoa izatea. Exijentzia hori Santurtzi bezalako talde bati egin behar zaio, iazko ekipo berbera duelako. Urdaibaik ere aukera handiak ditu. Isuntzak ere iazko blokea mantendu du. Hiru talde



GORKA BILBAO

horiek hartu behar dute lehenengoa izateko presioa.

■ **Presioa eta garaipenak lortzeko beharra izan daitezke Kaikuren aurkari nagusiak.**

Guri presioa sartu nahi digutenek hori esango dute. Horrekin dena esaten dizut.

■ **Zer deritzozu Euskal Herrian bi liga bereizi jokatzeari?**

Negargarria da. Ezin da onartu dagoen zatiketa ego-tea. Arraunketa auzo kirola bihurtzen ari dira.

■ **Kaikuk urte asko darama Donostian aritu barik.**

Otsailean izan ginen bertan. Guk geure helburuak ditugu, eta ez dut ametsetan egin nahi. Gure helburuen artean Bizkaiko Txapelketa dago. Horretaz gain, Kontxa-ko banderan sartzeko lehia-tuko gara, Euskal Herriko beste edozein talde bezala. Donostiarako txartela esku-ratzeko borrokan izango garen arren, horrek ez du esan nahi sartzen ez bagara porrota izango denik.

■ **Ze maila izango dute aurt-en Galiziako traineruek?**

Orokorrean traineruen maila aurreko urteetako ber-bera izango da. Hala ere, ez dut uste Tirango traineruak izan zuen mailara iritsiko direnik. Perillo eta Amegrove ondo ibiliko dira, baina beste maila batean.

■ **Eta gipuzkoarrak?**

Iaz baino zerbait makalago. Nire ustez, Orio gainerako traineru guztien gainetik izango da.

Ramon Basaldua
ELANTXOBE

Kaiku irabazle Elantxobeko banderan

R. B. / Bilbo

KAIKUK irabazi zuen igan-dean Elantxoben jokatu-tako bandera, Bizkaiko Ligako lehenengoa. Sesta-oarrek sei segundoko aldea kendu zioten Urdai-bairi. Bi ontziak batera iri-tsi ziren hirugarren ziabo-gara, baina Busturialdea-koek maniobra eskasa egin zuten.

Elantxobeko bandera

sailkapena

1. Kaiku	23.26.73
2. Urdabai A	23.32.33
3. Santander	23.44.16
4. Isuntza	23.44.81
5. Lutxana	23.47.05

Ondarroa bigarren Astilleron

R.B. / Bilbo

ONDARROAKO traine-ruak bigarren bukatu zuen igandean Astilleron jokatutako estropadan. Etxeko trainerua baino ez zen sailkatu *Antiguako Amaren* aurretik. Azpima-rratzekoa da lau segundo-ko aldea baino ez zela izan bost ontzien artean.

Astilleroko bandera

sailkapena

1. Astillero	20.35.89
2. Ondarroa	21.06.93
3. Castro	21.07.91
4. Zarautz	21.08.91
5. Camargo	21.09.45

Orioko zortzikoa garaile Sevillan

R. B. / Bilbo

ORIOKO zortzikoak urrez-ko domina erdietsi zuen Espainiako banku mugi-korreko txapelketan. Sei-garren urtez jarraian ira-bazi dute oriotarrek.

Espainiako txapela

sailkapena

1. Orio	5.54.29
2. Amposta	5.57.62
3. Koxtape	5.58.25
4. Santurtzi	6.02.31
5. Labradores	6.03.93

Bizkaiko traineruen mailari buruz

■
Ramon Basaldua

eta Isuntzak maila ona era-kutsi zuten Elantxoben, eta denboraldi polita egingo dute. Ez dute Kontxa iraba-ziko, baina gutxi batzuk baino ez dira hautagai Donostiako bandera irabaz-teko. Igandeko estropadan egindako denborak ohi bai-

no txarragoak izateak ez du esan nahi Urdabai, Isuntza edo Kaikuren maila makala denik. Edozein balorazio egin baino lehen kontuan izan behar da zein baldin-tzatan jokatu zen estropa-da. Itsasoa bare egon zela esan duenak ez zuen estro-

pada ikusi. Bermeotik Elan-txobera estropada ikustera hurbildu ziren ontzi batzuek ez zuten itzultzerik izan itsaso zakarra zela eta. Horrek garbi erakusten du zelan zegoen itsasoa. Kon-tuak kontu, ez dago zalan-tzan jartzerik Euskal Herri-ko traineru onenak Gipuz-koakoak direla. Garbi dago aurt-en ere zaila izango dela Bizkaiko traineru bat ikus-tea Kontxan. Hala ere, Biz-kaiko taldeetan ere lan egi-ten da eta lanean ari dire-nek, arraunlariek batez ere, errespetua merezi dute.

EUSKAL TRAINERUAK bananduta ariko dira aurt-en. Gipuzkoarrak eta Ondarroa alde batetik Eus-kal Ligan, eta bizkaitarrak bestetik, Bizkaiko Ligan. Bi lehiaketak konparatzen baditugu garbi dago traine-ru indartsuenak Euskal Ligan ariko direla: Orio, Donibaneko, San Pedro, Koxtape eta Trintxerpe. Horrek ez du esan nahi, oster, Bizkaiko traineruen maila gutxietsi behar denik. Bizkaiko traineruak dauden lekuan daude, ez gorago, ez beherago. Kaiku, Urdabai